

estrategiak estrategiak estrategiak estrategiak estrate

estrategiak estrategiak **estrategiak** estrategia


estrategiak estrategiak estrategiak estrategiak estrate

estrategiak estrategiak estrategiak estrategiak strateg

**estrategiak** estrategiak estrategiak estrategia



# IRAKURTZEKO GOGOA PIZTEKO ESTRATEGIAK



## PARADISUAREN JABEAK

### Helburuak

Helburua nagusia ikasleei irakurtzeko gogoia piztea da, hainbat teknikaren bidez. Teknika horien bidez, ikasleak edukiak garatuko ditu ezaugarri historikoak dituen obra jakin honetara hurbiltzeko, eta bide batez, sasoi jakin baten berri izateko.

2

### Pertsonaiak

**Ariadna:** neska gaztea da. Liburua idaztea erabakitzen du Zenonek Amerikan barrena egindako bidaiaren istorioa kontatzeko.

**Toni:** Ariadnaren laguna eta ikaskidea da. Liburua idazten lagunduko dio.

**Zenon:** Ariadna eta Toniren liburuko protagonista gaztea. Amerika zentzu guztietan deskubritzera ausartuko da.

**Frai Gonzalvo:** Amerikarako bidaiari parte hartzen duen fraidea.

**Lobisome:** «Saturnia» itsasontziko kapitaina.

**Marindia:** Zenonek Indietan ezaguturiko neska. Maitemindu eta ezkondu egingo dira.

**Frai Bartolomé de las Casas:** Indietarako espedizioetako batean parte hartu zuen pertsonaia historikoa. Gogotik saiatu zen hango biztanleak babesten.

## Liburua irakurri aurretik

Eleberri historiko baten aurrean gaude, eta beraz, jarduera honekin lortu nahi da ikasleek liburuko garaian sakontzea Andreu Martín idazleak aditzera ematen duen egoera egiazkoa ezagutzeko.

### 1. TESTUINGURUA

Liburuan oso izen esanguratsuak aipatzen dira; besteak beste, Kristobal Kolon, Karlos V.a, Frai Bartolomé de las Casas bera, eta Fernando eta Isabel Errege-erregina Katolikoak.

Ikasleek informazioa bilatu behar dute, bakarka nahiz taldeka, pertsonaia horietako bati buruz, eta laburpenaren berri emango dute ikasgelan, garaia nola deskribatzen dena egiteko.

### 2. MUNDU DESBERDINAK

Natiboen mundua eta haien ohiturak oso desberdinak ziren hara iritsitako espainolen ohituren aldean. Ikasleak hainbat paragrafo bilatu behar ditu liburuan, bi kulturen ezauzgarrien berri ematen dutenak: esate baterako, Marindiaren eta Zenonen ezkontza.

## Liburua irakurri bitartean

### 1. IKUSPUNTUAK

Interesgarria litzateke Carlos Sauraren «El Dorado» filma ikustea, eta zuzendariak deskubrimenduaren istorio honi ematen dion trataera aztertzea.

Behin liburua irakurri ondoren, biak konpara daitezke.

### 2. ENKOMIENDAK

Irakurri ahala, ohartuko gara kontakizunean Enkomiendei buruz hitz egiten dela; alegia, Errege-erregina Katolikoek eta Kolonek sinatutako hitzarmenari buruz. Itun horren arabera, aurkitutako lur guztiak kolonoen kargu utziko ziren, natiboen laguntzarekin ustia zitzaten. Lankidetzaren truke, lurren arduradunek konpromisoa hartzen zuten indiarrei babesa emateko, elikatzeko eta kristau-fedea irakasteko.

Historian zehar, begi-bistakoa da kultura batek beste bat menderatu izan duela gizarte askotan. Solasaldia bidera daiteke gaur egun ere horrelakorik gertatzen den eztabaidatzeko, beti ere iritziak argudiatuz.

## Liburua irakurri

### 1. ATALAK

Eleberriak 16 atal ditu. Hona hemen banaketaren egitura orokorra:

- Egoera geografikoa eta historikoa.
- Bartolomé de las Casasen bisita Karlos Espainiako I.a eta Alemaniako V.ari.
- Indiar tainoak eta karibeak.
- Paradisua...
- ...Infernu bihurtuta.
- Bartolomé de Las Casas eta Zerura joan nahi ez zuen indiarra.

Eleberriaren egitura aldatzea proposatzen dugu: hamasei atalei beste izenburu bat ematea, izena egokituz autoreak atal bakoitzean kontatzen duenari. Ondoren, ikasgelan jar daitezke erakusgai izenburu berri horiek.

5

### 2. ZENONEN ETORKIZUNA PARADISUAN

Liburuaren amaieran azaltzen zaigu nola ikusi zituen Marindiak (Zenonen emazte nati-boak) Santo Domingoko kaian espainolek hango biztanleekin egiten zituzten basakeriak. Horren aurrean, neskak bere paradisura ihes egitea erabakitzen du, eta uko egiten dio Espainiara joateari.

Jakina, Zenon haren atzetik abiatuko da. Baina zer etorkizun izan dezake pertsona batek bere maitearen kultura erabat ezezaguna baldin bazaio? Ongi molda liteke kultura horretara?

Ikasleek erantzunak arrazoitu beharko dituzte.

Bestalde, aberasgarria litzateke protagonistek Ama Naturan –haiek hala esaten diote– egingo lituzketen jarduerak deskribatzea.